

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1891

AGINDUA, 2017ko apirilaren 6koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, ehun eta berrogeita hamar milioi euroko Euskadiko zor publikoa jaulkitzeko eta eragiketa horren ezaugarriak zehazteko dena.

Urtarrilaren 31ko 37/2017 Dekretuak 2017ko ekitaldirako zorpetze-eragiketak egitea erabaki eta baimentzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak luzapen modura onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legearen 10. artikuluaen 1. zenbakiak Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren kontura, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen Araubideari buruz indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartu zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren 128. artikuluaen e) letran ezarritakoarekin bat etorritz.

Dekretu horren xedapen gehigarriak xedatzen du ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean agindutakorekin bat etorritz, Ogasun eta Ekonomiako sailburuari dagokiola, agindu baten bidez, xedapen horretan erabaki eta baimendutako zorpetze-eragiketak egiteko tresnak eta modalitateak zehaztea, bai eta dekretu horretan jaulkipenari buruz aipatu ez diren finantza-baldintzak eta ezaugarriak zehaztea ere, dekretuaren aurreikuspenen barruan betiere. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baldin eta zor publikoa balore gisa jaulkitzen bada.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Ehun eta berrogeita hamar milioi (150.000.000) euroko Euskadiko Zor Publikoa jaulkitzea, urtarrilaren 31ko 37/2017 Dekretuan jasotzen diren baimenei jarraikiz.

2. artikulua.— Jaulkiko den Zor Publikoak honako ezaugarri hauek izango ditu:

a) Zenbateko nominala: 150.000.000 euro.

b) Modalitatea: bonuak.

c) Jaulkitze-prozedura: kokapen pribatua.

d) Jaulkitze- eta ordainketa-data: 2017ko apirilaren 18a.

e) Interesa: % 0,60ko urteko interes nominala; kupoi luze bat ordainduko da 2018ko apirilaren 30ean.

f) Jaulkitze-prezioa: % 99,936.

g) Amortizazio-prezioa: parekoa, balio nominalean.

h) Amortizazio-data: 2022ko apirilaren 30a.

i) Baloreen adierazpidea: kontuko idatzoharrak.

j) balio unitarioa: mila (1.000,00) euro.

k) Jaulkipenaren kotizazioa: Bilboko Burtsa.

3. artikulua.— Harpidetza.

Ogasun eta Ekonomia Sailak bideratuko du jaulkipeneko baloreen harpidetza, hain justu ere jaulkipena egiteko mandatua duen erakundearen edo erakundeen bitartez, betiere bat etorritz balore-merkatuaren indarreko araudiarekin.

4. artikulua.— Gaikuntza.

Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketa hau egiteko behar diren kontratuak eta gainerako dokumentu erantsi eta osagarriak sina ditzan.

5. artikulua.— Harpidetza, jaulkipenaren interesak eta amortizazioa Norbolsa, Sociedad de Valores, S.A. enpresaren bidez ordainduko ditu Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores, S.A. enpresak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 38. artikuluan agindutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 6a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.